BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4144

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 5ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, Aulestin, Zeleta, S.L. enpresak sustatuta, Markinako Beltza (Lekoitz) harrobia ustiatzeko Proiektuak duen ingurumen-inpaktuaz adierazpena egiteko dena.

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren arabera, I. eranskineko B) atalean agertzen diren proiektuak ingurumen-inpaktua banaka ebaluatzeko jardunbide baten mende egongo dira, eta jardunbide horri amaiera emateko ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazioa egin beharko da, betiere proiektu horiek egiteko, edo, hala badagokie, baimentzeko hartzen den administrazio-ebazpenaren aurretik.

Zeleta, S.L. enpresak sustatuta, Aulestin, «Markinako Beltza» 12.668 zk.–ko ustiapen-emakidaren lehen luzapenean zehar Lekoitz harrobiaren ustiatu nahi da; bada, ustiaketa horren proiektua baimentzeko prozedura hasi denez gero, eta beherago zehaztutako arauak aplikatu behar direla-eta segidako lerroaldeetan aipatzen diren izapideak egin dira proiektu horri dagokionez. Direlako arauak: Proiektuen ingurumen-inpaktuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, eta Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea.

● Proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluazioa egitea. Energia eta Meategietarako Zuzendaritzak eskaturik, 2010eko azaroaren 9an, ingurumeneko organoak hasiera eman zion urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko 16. artikuluan zehaztutako aldez aurretiko izapideari, zertarako-eta Markinako Beltza (Lekoitz Harrobia) Emakidan ustiapen-eremua zabaltzeko proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatu behar den ala ez erabakitzeko. Ingurumeneko sailburuordeak 2011ko martxoaren 1ean emandako Ebazpenaz bukatu zen izapide hori; beraz, proiektuari ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedura aplikatzea erabaki zen.

● Ingurumen-inpaktuaren azterketaren edukia ezartzea. Urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko 17.3 artikuluarekin eta aipatu ebazpenarekin bat etorriaz, aipatu ebazpenarekin batera proiektua helarazi zitzaion sustatzaileari, eta Energia eta Meategietarako Zuzendaritzari, ingurumen-inpaktuaren detailezko azterlanari eta hedadurari buruzko txostena

● Jendaurreko informazioaren izapidea. Energia eta Meategien Zuzendaritzak proiektua jendaurrean jartzea erabaki zuen, eta, orobat, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlana. (2011ko uztailaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 131. zenbakia).

● Espedientea bidali eta ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpena eskatzea. 2012ko otsailaren 16an, Energia eta Meategietako Zuzendaritzak Ingurumen Sailburuordetzari igorri zion espedientea, zertarako-eta Proiektuek ingurumenaren gainean duten eraginari buruzko testu bategina onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko 12.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko. 2012ko maiatzaren 7an, ingurumen-organoak formulatutako betekizunekin bat, espedienteari dokumentazio osagarria erantsi zitzaion.

● 2012ko ekainaren 7an, neurri osagarriei dagokienez kontsulta egin zitzaion Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren. Neurri osagarri haiek honako hauek dira: jendaurreko informaziorako eta eraginpeko administrazioei entzuteko izapidearen ondoren espedienteari erantsitako dokumentazioan aurreikusitakoak.

● 2012ko ekainaren 20an, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren erantzuna jaso da.

Erreferentziako proiektuaren espedientean dauden txostenak eta dokumentazio teknikoa aztertu ondoren eta ingurumen-inpaktuaren azterketa zuzena dela eta indarrean dagoen araudian aurreikusten diren alderdietara egokitzen dela aintzat hartuta, Ingurumen Sailburuordetzak, Ingurumen-Inpaktuari buruzko Adierazpena emateko eskumena duen organoaak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren arabera, honako hau

EBAZTEN DU:

1.– Ingurumen-inpaktuaz deklarazioa egitea; hain justu ere Zeleta, S.L., enpresak sustatuta, Aulestin, Markinako Beltza (Lekoitz) harrobia ustiatzeko proiektuari dagokionez.

2.– Honako baldintza hauek ezartzea proiektua burutzeko; baldintzok lotesleak dira Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 47.2 artikuluari jarraikiz.

2.A.– Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko espedienteari erantsitako dokumentazioarekin bat etorriaz gauzatu beharko da proiektua, eta, bereziki, ebazpen honetan finkatutako zehaztapenen arabera.

2.B.– Proiektua aldatu edo handitu nahi izanez gero, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da, bere II. eranskineko 9.k) epigrafearekin bat. Dekretu horren bidez onartu zen proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina.

Proiektuan egingo diren aldaketa jakinak aurreko idatzi-zatian adierazitako garrantzirik ez dutenean, jarduerak irauten duen bitartean sortzen direnean, ingurumenaren ikuspegitik ere arrazoitu egin beharko dira. Kasu horietan, neurri babesle eta zuzentzaileetan, eta ingurumena zaintzeko programan, aldaketa egokiak egingo dira proiektu berrira egokitzeko.

2.C.– Neurri babesleak eta zuzentzaileak.

Neurri babesle eta zuzentzaileak honelaxe burutuko dira: proiektuaren titularrak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko, proiektuaren titularrak aurkeztu zituen agirietan jasotakoaren arabera. Era horretan, neurri horiek hartzeak, batetik, eta kontrolerako jarritako langileek, bestetik, bermatu ahal izango dituzte azterketan jasotako kalitate-helburuak, eta bai Ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazio honetan ezarritakoak ere. Ondorengo idatzi-zatietan adierazitako neurriak ere gehitu beharko dira.

2.c.1.– Proiektuaren eremua.

2.C.1.1.– Proiektuaren eragin-eremu maximoa eta ustiapen-faseko azken egoera bat etorriko dira honako plano honetan aurreikusitakoarekin: 1. zenbakiduna, «Topografikoa, Azken Egoera» izenekoa, eta dokumentu honetan sartua:«Lekoitz 12.668 EKko Ustiapen Proiektua. Aulestia Bizkaia. Ingurumen-inpaktuaren gaineko azterlana. II. Dokumentazio osagarria. 2012ko apirila».

Dokumentu hori Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa Sailak helarazi zuen, 2012ko maiatzaren 7an.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa beteko dela bermatzeko, proiektuak gehienez izango duen eragin-eremua zedarritu beharko da, tokian bertan mugarriztatuta.

2.c.1.2.– Gorago esandakoaren aurka egin gabe, proiektuaren sustatzaileak honako aukera kontsideratu du: merkatuaren baldintzen arabera, lehengo zabortegia aprobetxatzea, bertan diren materialak erabiltzeko, esate baterako, erakuntzarako agregakinak, nahiz eta aukera hori ez den jorratu ustiapen-proiektu orokorrean.

Aipatu aukera gauzatzea aurreikusiz gero –ebazpen honetako 2.B idatzi-zatian aurreikusitakoaren aurka egin barik– zabortegia aprobetxatzen hasi baino lehen, aipatu zonako jarduera-proiektu espezifikoa Ingurumen Sailburuordetzari helarazi beharko zaio, hain justu ere ingurumeneko ondorioei dagokienez onar dezan; dena dela, proiektu horretan honako hauek jaso beharko dira: ingurumen-inpaktuak gutxitu era prebenitzeko, hartu beharreko neurri babesleak eta zuzentzaileak, eraginpeko espazioa leheneratzea barne delarik.

2.c.2.– Ondare naturala babesteko neurriak.

2.c.2.1.– Basoetako zenbait espezie bertakoen Araudi berariazkoari buruzko urriaren 14ko 11/1997 Foru Arauan xedatutako aplikatzearen aurka egin gabe, interes naturalistiko handiko guneetan (Quercus rotundifolia eta Quercus ilex-dun Basoak 9349 Habitata), zehazki, ustiategiarekin muga eginik erauzketa-jarduerak zuzenean eragingo ez dieten guneetan neurriak hartu beharko dira, hain justu ere beharrezko azalerari bakarrik eragiteko prekauzioak areagotzeko direnak. Hartarako, ustiapenak aurrera egiten duen fase bakoitzeko, gune horiek zedarriztatu eta balizatu egin beharko dira.

2.c.2.2.– Proiektuaren eragin-eremuan sai zuria (Neophron percnopterus) espezie ugaltzailea izan litekeela aipatu da, zeina Basa eta Itsas Fauna eta Landarerian arriskuen diren Espezien Euskadiko Zerrendan jaso baitago; dena den, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlana lantzerakoan egindako behaketetan ez zen berretsi hegazti haren presentzia.

Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean eta Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko urtarrilaren 10eko Aginduan xedatutakoaren aurka egin gabe, beherago zehaztutako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen dira. (Aipatu agindu horren bitartez, Basa eta Itsas Fauna eta Landarerian arriskuen diren Espezien Euskadiko Zerrendan aldatzen da eta testu bakarra onartzen).

● Proiektuaren titularrak aurkeztutako proposamenarekin bat etorriaz, sai zuriari dagokionez honako hauek zehazteko azterlan espezifiko bat egingo da: baden ala ez, lurraldeaz zer erabilera egiten duen eta habiak egiten dituen gunea. Horretaz gain, hegazti horren ingurunean diren zaratak eta bibrazioak zehaztuko dira, zertarako-eta harrobiaren jarduerak noraino eragiten duen jakiteko. Identifikatu egin beharko dira, proiektukoak izanik arazo handienak sortzen dituzten ekintzak.

● Azterlanaren ondorioen bitartez zehaztuko da neurri zuzentzaileak hartu behar diren ala ez; eta neurri horien artean honako hau ere baloratu beharko da: martxoaren 15etik irailaren 15era bitartean, harrobiko lan jakin batzuk mugatu beharra. Azterlan hori Ingurumen Sailburuordetzari helarazi beharko zaio, Ingurumen-inpaktuari buruzko Deklarazioa argitaratzen denetik harako hiru hilabeteko epearen barruan.

● Halaber, azterlan horren konklusioak berresteko, espeziaren aldi kritikoan zehar segimenduak egingo dira, hain justu ere helburu hauekin: eragin erreala norainokoa den zehaztea; eta hasieran zehaztu gabeko alterazioren bat hautemanez gero, neurri zuzentzailea osagarriak ezartzea.

2.c.2.3.– Tokiko konektibitatearekiko eraginak –Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren 2011-07-27ko txostenean sartutakoak– ekiditeko neurri babesleak eta zuzentzaileak hartu beharko dira. Ebaluazio-prozeduraren eraginpeko administrazioei entzuteko izapidearen barruan eman zen txosten hori. Eta neurri horietan honako hauek nabarmendu daitezke:

● Faunarentzat permeabilitate handiena duten harrobiko itxiturak lehenetsiko dira, eta arriskuko aldeetara (usiategiko hutsuneen perimetroa, leherketak egingo diren aldeak, etab.), mugatu egingo dira sare zarratuko itxiturak.

● Dekantazio-putzuek eta estali gabeko ur-deposituek honako elementuak izan beharko dituzte euretara erortzen diren ornodun txkientzako: aldapa txikitua duten aldeak, eta pareta bertikalen ordez azalera zimurtsuak.

2.c.2.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

Uren arloan legeriak xedatutakoren aurka egin gabe, eta, halaber, ibai-arroko erakundeak, bere eskumenpeko ekintzei dagokienez, ezartzen dituen baldintzen aurka egin gabe, honako neurri babesleak eta zuzentzaileak aplikatu beharko dira:

2.c.3.1.– Proiektuak drainatze-sare bat jaso beharko du, honako isurketa hauek biltzeko: ustiategiko hutsunekoak, harrobiaren instalazioek hartzen duten aldekoak; eta. orobat, sarbideko bideetako eta pista-sistemako zirkulatzaileak. Drainatze-sistema horren azken elementua hauxe da: dekantazio-putzuen sistema bat, hain justu ere suspentsioan diren solidoak dekantatuaz urak arazteko dena. Biltegi-deposituetara ponpatzen dira tratatutako ur horiek, zertarako-eta harrobiko zenbait jardueretan berrerabili daitezen.

Aipatu sisteman soberan diren emariei dagokienez, Jaime harrobira eraman eta berrerabiltzea proposatu du proiektuaren sustatzaileak; eta proposamen hori URA Uraren Euskal Agentziari igorri dio, hain justu ere Lekoitz eta Jaime harrobietako hondakin-urak isurtzeko baimen-eskabidearen barruan.

Arro-erakundeak zehazten duenarekin bat etorriaz gauzatu beharko dira hondakin-urak kudeatzeko sistema garatu eta exekutatzeko neurriak.

Drainatze-sarea eta sare horren azken elementuak egokitu egin behar dira, proiektua garatzeko fase bakoitzean ustiategiak duen konfigurazioaren arabera; betiere, uneoro bermatzeko ustiategian sortutako isurketa guztien bilketa, solidoen atxikipen ezin hobea eta isurketa lokalizatua, indarrean dagoen araudiaren araberakoa beti.

2.c.3.3.– Sustatzaileak, proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko aurkeztutako agirietan adierazi bezala bildu eta araztuko dira hondakin-ur sanitarioak.

2.c.3.6.– Ustiategiko hondakin-urak (isurketa direnak) tratatzeko sistema guztiek irteerako kutxeta bana izango dute laginak hartzeko. Edozein modutan, isurtzeko baldintzak arro-erakundeak erabakitzen duen moduan gauzatuko dira.

2.c.3.4.– Aurreko epigrafeetan aurreikusi diren hondakin-urak tratatzeko sistemak aldian-aldian garbitu behar dira, tratamendu-sistemaren etekinik onena bermatzeko eta uneoro erabilera gaitasun nahikoa eduki dezaten.

2.c.3.5.– Erregaien zama-lanak, olio aldaketak eta ibilgailuak mantentzeko eta konpontzeko lanak zola iragazgaitza eta isurketak biltzeko sistema dauzkan leku batean egingo dira, nahi gabe egiten diren isurketen ondorioak arintzeko.

2.c.3.6.– Ustiategian, hidrokarburoak xurgatzeko material espezifikoa (erroilu erakoa edo gai pikortatuzkoa, etab.) izango da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala erabili ahal izateko.

2.c.4.– Hautsa ez zabaltzeko neurriak.

Urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren bitartez, atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen da eta hura aplikatzeko oinarrizko xedapenak ezartzen dira. Bada, dekretu horren eranskinean jasotzen da jarduera, eta azaroaren 15eko 34/2011 Legean eta azaroaren 27ko 278/2007 Dekretuan ezarritako obligazioei eta baimen-erregimenari egoki beharko zaio (azaroaren 27ko 278/2007 Dekretuaz, atmosfera kutsa dezaketen jarduerak gauzatzen diren instalazioak arautzen dira; eta azaroaren 15eko 34/2007 Legea, atmosfera babesteari eta airearen kalitateari buruzko da).

2.c.4.1.– Partikuletarako muga-balioak –urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuan ezarritakoak– gainditu gabe gauzatu beharko da jarduera.

2.c.4.2.– Zulaketako eragiketetan, lan-talde guztiek hauts-kaptadoreak izan beharko dituzte. Diamanteztutako haridun ebakitzaileek ebaketa-sistema bat izango dute, hezetasunez funtzionatuko duena.

2.c.4.3.– Harrobiko plaza eta kamioiak ibiltzen diren eremuak ureztatzeko beharrezko bitartekoak izango dira, hautsaren barreiadura ahalik eta gehien murrizteko. Plaza nahiz harrobiko sarbideak mantendu eta garbitu egin beharko dira, hautsa ahalik eta gutxien barreia dadin.

2.c.4.4 - Kamioiak harrobitik irten aurretik garbitzeko sistema bat izango da, dekantazio-putzuari lotua, proiektuak ingurumenean duen eraginaren ebaluaziorako sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoarekin bat datorrena.

2.c.4.5.– Agregakinak garraiatzeko kamioiek zama estaltzeko olanak izango dituzte, haiek airean barreiatu ez daitezen.

2.c.4.6.– Agregakinak birrindu, sailkatu eta biltegiratzeko instalazioetan partikulen isurketa murrizteko gailuak jarri beharko dira, hauts ugari sortzen den alde guztietan. zinta garraiatzaileak estalita egongo dira; eta birrindu eta sailkatzeko instalazioek eta zinta garraiatzaileen arteko transferentzia-puntuek ixte-egiturak izango dituzte.

Hautsa murrizteko sistemei –ustiategian instalatutakoei– ahalik etekin gehien ateratzeko, haiek behar bezala erabiltzeko jardunbide egokien kode bat ezarri behar da, eta harrobiko langileei nola erabili irakatsi beharko zaie. Jardueraren eta eguraldiaren arabera beharrezkoa den puntuetan ureztapen-sistema aktibatu beharko da, eta kamioien gurpilak harrobitik irten aurretik garbitzeko sistema bat erabiliko da.

2.c.5.– Zaraten eta bibrazioen ondorioak gutxitzeko neurriak.

2.c.5.1.– Zarata, sortzen den lekuan, praktika operatibo onak aplikatu beharko dira ustiapen-fasean zehar; batez ere, zamalanetan eta erabiltzen den makinariaren mantenimendu orokorra egiterakoan.

2.c.5.2.– Leherketen proiektuak UNE 22-381-93 arauaren arabera egin behar dira; hortaz, proiektuaren eragin-eremuan dauden eraikinetan eragindako bibrazioek ezingo dituzte arau

horretan ezarritako mugak gainditu. Eraikuntzen agerieneko fatxadan, aireko uhinaren presioak ezingo du 128 dB(L) gainditu, balio handiena baita hori.

2.c.5.3.– Sustatzaileak banan-banako informazio sistema antolatu behar du harrobitik hurbil bizi direnentzat. Horrela, auzokoek zehatz jakingo dute zer-nolako neurriak hartu behar dituzten leherketek eragiten dituzten dardaren eta aire-uhinaren ondorioak gutxitu eta kontrolatzeko.

2.c.5.4.– Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonifikazio akustiko, kalitate-helburu eta igorpen akustikoei dagokienez, zona akustikoen kanpoko ingurunera honako zaratak hauek ez transmititzeko, beharrezko neurriak hartuko dira: III. eranskineko B1 taulan ezarritako muga-balioa gainditzen dituztena zaratak (IV. eranskineko prozeduren arabera ebaluatuak).

Jardueraren zuzeneko edo zeharkako eraginez, aipatutako arauaren 14. eta 16. artikuluetan zaratari buruz ezarritako kalitate helburuak gainditzen badira, jarduera horrek neurriak hartu beharko ditu helburu horiek ez gainditzeko.

2.c.6.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

2.c.6.1.– Jarduerak iraun bitartean sortutako hondakinak Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta arautegi zehatzetan aurreikusitakoarekin bat etorriz kudeatuko dira.

Erauzketa-industrien hondakinak kudeatzeari eta meategietako jarduerak eragindako tokiak babestu eta leheneratzeari buruzko ekainaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuak agintzen duenaren arabera kudeatuko dira meategiko hondakinak.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro, lehentasunez, behar bezala baimendutako balorazio-prozesu batetik igaro beharko da. Alde horretatik, honako lehentasun-hurrenkera hau ezartzen da: berriro erabiltzeko prestatzea; birziklatzea; beste balorazio mota bat, balorazio energetikoa barne dela. Hondakinak ezabatu ahal izango dira soilik aldez aurretik behar bezala egiaztatuz gero: teknika, ekonomia edo ingurumen aldetik ez dela bideragarria hondakin horiei balioa ematea.

2.c.6.2.– Zabortegira bidali beharreko hondakinak, gainera, Hondakinak zabortegietan utziz ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuaren eta Hondakinak zabortegietan utziz ezabatzea eta betelanak egikaritzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera kudeatuko dira. Hondakin horiek karakterizatu egin beharko dira, 2001eko otsailaren 19an Kontseiluak hartutako 2003/33/EE Erabakiaren arabera; erabaki horrek hondakinak hondakindegian onartzeko irizpide eta prozedurak ezartzen ditu, 1999/31/EEE Zuzentarauaren 16. artikuluari eta II. eranskinari jarraikiz.

Jarduerako material-soberakinak betelanak egiteko erabiltzen badira, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Kutsatzaile-edukia ebaluazioko balio adierazleetan (EBA-A) ezarritako balioen azpitik daukaten materialak soilik onartuko dira betelanetan. Adierazle horiek jasota daude otsailaren 4ko 1/2005 Legean, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoan, I. eranskinean, hain zuzen.

2.c.6.3.– Proiektua gauzatu bitartean eraikuntza- eta eraiste-hondakinak sortzen badira (bereizketa-instalazio berriak egiten direlako, eraikin zaharrak eraisten direlako, eta abar), otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera kudeatu beharko dira (Dekretuak eraikuntza- eta eraiste-hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzen du).

2.c.6.4.– Hondakin arriskutsuentzako ontzietan, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren (hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen du dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte; itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du, aipatutako uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen arabera.

2.c.6.5.– Olio erabilia kudatzeko honakoak hartuko dira kontuan: industriako olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua eta olio erabiliaren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretua.

Baimendutako kudeatzaile bati eman arte, olio erabilia andel iragazgaitzetan bilduko da, estalitako biltegi batean. Andel horiek behar bezala etiketatuta eta zola iragazgaitzen gainean egon beharko dute, edozein ihesi edo isuriri aurre egiteko prestatutako kubetetan edo euste-sistemen barruan.

2.c.6.6.– Araudi hau errazago betetzeko, lan desberdinetan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak edukiko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistemak, eta arduradunok sistemak zuzen erabiltzen dituztela ziurtatzeko ardura izango baitute. Bereziki, inolaz ere ez da eragingo kontrolatu gabeko efluenterik, erregai eta produktuak biltegiratzean, makineria mantentzeko lanak egitean edo hondakinak erretzean.

Eremu jakin bat egokituko da, instalazio estaliekin, aldi batean hondakin arriskutsuak pilatzeko; hala nola, olio-poteak, iragazkiak, olioak, margoak eta abar. Gainera, hondakin geldoentzako edukiontziak ere jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneetatik bereizita.

2.c.7.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeko xedapenak gorabehera, lanak egin bitartean aurkikuntza arkeologikorik egin bada, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila jakinaren gainean jarri behar da berehala, azken horrek egoki diren neurriak ezar ditzan.

2.c.8.– Ustialekuaren eraginpeko paisaia eta eremua leheneratzeko neurriak.

Erauzketa-jarduerek eragiten dioten espazio naturala leheneratzeari buruzko 115/2000 Dekretuan ezarritakoaren aurka egin gabe, eta, orobat, Erauzketa-industrien hondakinak kudeatzeari eta meategietako jarduerak eragindako tokiak babestu eta leheneratzeari buruzko ekainaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuan ezarritakoaren aurka eta «Lekoitz 12.668 EKko Ustiapen Proiektua. Aulestia Bizkaia. Leheneratzea proiektua. 1. Berrik» (2011 abendua) dokumentuko proposamenaren aurka, beherago zehaztutako neurri zuzentzaileak eta babesleak hartuko dira (Energia eta Meategietako Zuzendaritzak 2012-02-16an bidali zion proposamen hori Ingurumen Sailburuordetzari).

2.c.8.1- Erauzketa-lanek erasandako alde guztiak leheneratuko dira; baita aurkeztutako leheneratze-planean agertu barik azkenean ustiaketaren ondorioz kaltetu direnak ere.

2.c.8.2.– Landare-berritzeak, bertako espezieak sartuta, landaretza-masa trinkoak eta jarraituak ezartzeko aukera eman behar du; habitat naturalak sortu behar dira, eta, ahal dela, horiek inguruan dagoen landaredia naturalarekin lotu.

2.c.8.3.– Robinia pseudoacacia, Cortaderia selloana edo beste landare inbaditzaile batzuk ez zabaltzeko ekintzak burutuko dira. Alde horretatik, landare-estalkia leheneratzeko erabilitako lurren jatorria kontrolatu beharko da, espezie horiekin kutsatutako lurrak ez erabiltzeko.

2.c.8.4.– Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren 2011ko ekainaren 27ko txostenarekin bat etorriaz,–ingurumen-inpkatuaren ebaluazio-prozedurak eragiten dien administrazioei entzuteko izapidean eman zen txosten hori–, erauzketa-jarduera areagotzearen ondorioz artadi kantauriarrak galdutako azalera konpentsatu egin beharko du proiektuaren sustatzaileak, 1:1 erlazioa baino handiagoan.

Txosten horretan jaso zenez, artadi kantauriarrak 3,2 Hektarea galdu zituen, eta hori berretsi egin zen 2012ko ekainaren 20ko beste txosten baten bitartez.

Beraz, konpentsazio-neurriei buruzko proposamena berriro formulatu beharko du proiektuaren sustatzaileak, betiere Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak ezarri dituen zehaztapenak kontuan izanik, zeintzuk jarraian adierazten diren:

● Artadiaren masa galtzearen ondoriozko inpaktua honelaxe konpentsatuko da: artadi berri bat egitera zuzendutako espazioak leheneratuaz, batez ere proiektuaren aldameneko zonetan.

● Egingarria eta eraginkorra dela baloratu ahal izateko, proiektua behar beste detailerekin definituko da, hain justu ere honako hauek jasoaz: azalera erabilgarriak, azalera horien ezaugarriak eta egungo erabilerak; memoria (proposatutako tekniken justifikazioa, hautatutako espezieak eta landaketa-dentsitatea); neurketen koadroa; obra-unitateen definizioa; preskripzio teknikoen plegua; planoak, eta aurrekontu detaileduna.

● Harrobia bera leheneratzeko neurriak ez dira kontsideratzen konpentsazio-ekintza. Hondatutako zona bat leheneratzearen aldeko hautua egiten bada, proiektutik aparteko ekintzengatik egon beharko du egoera horretan zona horrek.

● Konpentsazio-ekintzak honelaxe planifikatuko dira: konpentsatu nahi den inpaktuari aurrea hartzeko moduan, betiere delako inpaktua ekiditeko edo ahalik eta denbora gutxienean izateko konpentsaziorik gabe.

2.D.– Ingurumena zaintzeko programa.

Jardueraren titularrak proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusten denaren arabera egingo da ingurumena zaintzeko programa. Gainera, ondoren zehazten diren beste kontrol hauek ere erantsi behar zaizkio.

2.d.1.– Isurketa-uren kalitatea kontrolatzea.

Dekantazio-putzuen irteeran uren kalitate-kontrola,–sustatzaileka proposatutakoa–, lehen urtean hilean behin egin beharko da.

Aldi horren ondoren, kontrolen maiztasuna isurketen baimenean organo eskudunak ezarritakoa izango da.

2.d.2.– Airearen kalitatea kontrolatzea.

Airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuarekin bat etorria egin beharko dira sustatzaileak proposatutako kalitate-programako neurketak.

2.d.3.– Zarataren kontrola.

Leherketetatik ez datorren zarataren kontrola, sustatzaileak proposatutakoa, hiru hilabeterik behin egin behar da.

Neurketak egunez egingo dira, harrobian jardun gehien dagoen momentuetan.

Neurketa-metodoak eta erreferentziako balioak, gainera, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean ezarritakora eta hura garatzen duen araudira egokitu beharko dira.

2.d.4.– Faunaren gaineko eraginaren kontrola.

Ingurumena zaintzeko programak honako hau ere jasoko du: proiektuak sai zurien populazioaren gainean duen eraginaren (ebazpen honetako 2.c.2.2 idatzi-zatian aurreikusitakoaren) segimendua.

2.d.5.– Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, ingurumen-inpaktuaren azterketan eta ebazpen honetan proposatutako betekizunak biltzeko.

Programa horretan, kontrolatuko diren parametroak eta parametro bakoitzerako erreferentziako balioak zehaztuko dira, bai eta beste hauek ere: laginketarako eta analisirako metodologia; kontrol-puntuan non dauden kokatuta xehetasunezko kartografian; kontrol horien maiztasuna; eta guztia gauzatzeko aurrekontuaren gaineko xehetasunak.

2.d.6.– Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisien eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaizkio. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, ingurumenean aditua den erakunde batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan emaitzak analizatuko dira, eta batez ere, epe horretan izandako gertakari nagusiak, gertakari horiek izatearen arrazoiak eta irtenbideak; eta aurretik zehaztu ez diren kasuetan lagin-hartzearen xehetasunak aztertuko dira.

Kasu bakoitzean aplika daitekeen arautegia kaltetu gabe, sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez, eta herri-administrazioen ikuskaritza-zerbitzuen esku egongo dira.

2.E.– Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, ingurumen-organoak, jardueraren sustatzailearen eskariz edo bere kabuz, neurri babesle eta zuzentzaileak edota ingurumena zaintzeko programa aldatzea erabaki dezake, baldin eta egoki baderitzo ingurumena zaintzeko programaren ondorioak ikusita edo neurri babesleek, zuzentzaileek edo konpentsatzaileek, gerta daitezkeen ingurumen-inpaktuen inguruan erakusten dituzten gabeziak kontuan hartuta.

2F.– Ebazpen honetako aurreko paragrafoetan ezarritakoari kalterik egin gabe, sustatzaileak honako agiri hauek igorri beharko ditu Ingurumenaren Sailburuordetzara, espedientean sar daitezen:

2.f.1.– Ebazpen hau argitaratzen denetik harako hiru hilabeteko apearen barruan, harrobiaren inguruak sai zuriek habiak egiten dituzten zonei buruzko azterlana; eta, beharrezkoa bada, espezie horri ez eragiteko beharrezko diren neurri babesle osagarriak.

2.f.2.– Ebazpen hau jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean, neurri konpentsatzaileen proiektua, ebazpen honen 2.c.8.4 idatzi-zatian aurreikusia.

2.f.3.– Ebazpen hau jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean, ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina, ebazpen honen 2.d.5 idatzi-zatian aurreikusitakoa.

2.f.4.– Urtean behin, ingurumena zaintzeko programaren emaitza, ebazpen honen 2.d.6 idatzizatian aurreikusitakoare arabera.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak 47.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko deklarazio honek, ondorio guztietarako, jarduera-lizentzia emateko behar diren neurri zuzentzaileen txostena ordezkatzen duela jakitera ematea.

4.– Proiektuen ingurumen-inpaktuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 14.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektuaren sustatzaileak aldez aurretik jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari proiektuari dagozkion lanak zein egunetan hasiko diren.

5.– Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko deklarazio hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 5a.

Ingurumeneko sailburuordea,
M.ª ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.